

## Amatchi.

Pastorala Kantatua. Hitz neurthuz eta larriz egiña, bi Zathitan.

Teatriak erakusten dauku: Echkerretarik, agertokiaren hastetik eta gibelerat, ostatu handi baten aitziañ-aldia; hunen luzetasun guzian kapena bat arrosaz eta mahats aihenez estalia. Etche zolako bi salak argituak dire bi leiho zabaletarik: Lehena da sukaldia; bertzia sal-erosteko, edateko, tabako eta supichtekuen tokia. Bien artian ezkaatza. Hunen argamasari bizkarrez, leihotik ageri da bacherategi dirdirant bat.

Lehenbiziko estajan, etchiaren luzetasun guzian, bada zurezko balkoin bat zoñetarat idekitzen baitire geletako athiak.

Bigarren estajan eta hegastegitik beherachago sellaruko leihua, eta hunen bi sahetsetan usotegiko zillo, hirur chokodunak.

Leiho horren azpian etchiaren erakutsia:

*Ongi Ethorri: Jaterat eta edaterat izanen duzue.*

Hitz haukien bazterrian eta paretan tintatuak, beltchez, pipak, botillak eta basuak.

Kapenak badauka agertokiko zabaltasunaren erdia.

Bi mahañ lerro ibeñiak daude azpian.

Eskoñetarik, hejako aintziañ aldia eta etcholetakuenak. Harrasi apha, errechki ichtapeka ditaken bat, doa agertokiaren aintziañetik gibeleraño, chuchen, han kapena itzulikatzen du eta baratzen da athelada batian, zointarik baita barrokiko sar lekhua. Harrasi horren erdian gereta zabal bat, hejalat heltzeko, harrasia ichtapekatu gabe. Hejaren eta etchiaren artian, pillota plaza ttiki baten luzamena. Plazaren pareta egiten du etche zahar baten bizkarrak.

Bidechka bat, gibleko harrasiaren parrian iragaiten da lehenik, gero, oiherki, plaza ebakitzen du, hejaren gibelian gordetzeko: Ager

ditake, haratago, haritz floka baten ondotik, azkenik etche multzo batek eta elizik arras estaltzeko.

Urrunago, bi zurtchuri eta haltz lerroren artian; baratche aintziñatzen da urhandi urdiñ eta garbi bat.

Arras urrun : Mendiak.

### Hitzkariak.

Amatchi ( <i>Gachucha</i> ) ostalera . . . . .	32	urthe
Maider, Amatchiren alabatchia . . . . .	18	„
Katicha, Maiderren ama ( <i>farnesiatua</i> ) — Amatchiren ahizpa zaharrena . . . . .	42	„
Klara, Kongregazioneko nechka . . . . .	20	„
Emazte bat . . . . .		
Biganen emaztia . . . . .		
Nechkatto bat . . . . .		
Ostatuko sehi bat . . . . .		
Chalbat, Zurgin nausia . . . . .	28	„
Patziku ( <i>Aise</i> ) Amatchiren anaia (Chantria) . . . . .	50	„
Sansin ( <i>Llarru</i> ), Maiderren aita; ostaler ohia . . . . .	50	„
Zurgin langille bat . . . . .		

Emazteki eta gizonak. Proasionezko gizon gazte apha-induak. Kongregañistak, haundi eta ttiki. Muttiko eta nechkatto churiz jauntziak. Betterrak. Chirolari, gaitari, atabalari eta trunpetariak.

Gerthakaria gure denborakua da: Besta Berri Oktaban, Laphurdin iragaiten dena.

### Agerraldi Lehena.

Emazte eta nechkatcha batzuek hari dire aldare baten apha-intzen hejari buruz, bañan bide -aldetik; beraz, ez dire aldariaren sahetsa eta zenbeit adar lore baizik ageri. Aldariaren gibelian ibeñirik dagon oihal gorria itzultzen da hejaren aintziñeko pareterat, bi metraz.

Erdiko mahañian musian hari dire laur gizon. Bertze batzuek beha dagozkote. Mahañ guzietan dafallak, basuak, botilla hutsak,

kikerak, barrejaturik. Ezagun da jende hañitz hor bazkaldu dela. Sehiak alchatzen dituzte traste guziak eta sukalderat erematen: Zaluki badabillza.

Teatreko estalkia alchatzen delarik, emaztiak mulchokatu dire kongregazioneko nechka gaztienekañ, aldariaren aldian.

### Kantatzen dute batian.

*Gizonek eta sehiak  
ostauan.*

Lehen partida debruak gandu.

*Zenbeitek.*

Ttiki hortarat jo ezpazindu  
Falsua etzuten irabaziko,  
Nahiz duketen sobera joko.

*Denek.*

Lehen partida debruak gandu.

*Chalbatek.*

Huni-Chemartiñ. Gazen zuhurki.

*Patziku.*

Biak inbido !

*Chalbat.*

Biak iduki.

*Emaztiak eta nechkek aldare  
aintzinian.*

Aldare hunek ichur'ona du.

*Zenbeitek.*

Ganden urtekua ginduen zaindu,  
Bañan Amatchik emanikako  
Unziek dute hau edertuko.

*Denek.*

Aldare hunek ichur'ona du.

*Emazte batek.*

Ausarki lore emozute ba.

*Bigarren emaztiak.*

Denak gan dire.

*Emazte batek.*

Nun dut alaba?

Echkerreko kantariak ichiltzen dire eta karteri jarraikitzen. Eskoñekuak, aldiz , aintziñatzen dire erdirat. Kantatzen ez duten batzu baxharrik gelditzen dire aldariaren aintziñian.

*Nechkatto bat.*

Hemen naiz, hemen.

*Emazte bat.*

Baratze hortan baditun, ornen,  
Arrosa churi ikhusgarriak.  
Bill'atziñ zalu.

*Nechkatcha* (haurrak erakusten dituelarik).

Kantu berriak

Behar nituzke errepikatn . . .

Maidar agertzen da ostatuko athian.

### **Bigarren Agerraldia.**

*Berak — Maidar.*

*Maidar.*

Gure kapenan billduko ditu.

Zato, Janeta . . .

Nechkatcha hurbilltzen da eta kapenatik hartzen ditu arrosak.

*Maidar* (nechkattueri).

Zatozte denak,

Eta har hosto atzo emanak.

Nechkattuak elgarri pusaka edo egosiaka mulchatzen dire Maidarren aintziñian eta hedatzen dituzte beren hostuak.

Maiderrekin bere manamenduko chiriarekin jotzen du neurri bat, hutsik.

Nechken gurguri hirritsua entzunen da.

*Maidar* (narrizki).

Ichil zaudezte. Segi chiri hau.

Orai kasu : Bat ! Bia ! Hirur ! Lau !

*Nechkek.*

Jesus on illki zauku aldare barnetik,

Bere haurren erdian gozatzia gatik.

Lehengo denboretan, nausien nausia

Bardiñ gure arterat hola zen jautsia.

Zer mirakullua!

Lur huntan zerua

Hor dugu egun.

Jainkoak ekharri

Bozkario hori

Kanta dezagun.

Sartzen dire, haizia bezala, dozena bat nechkatcha, Maidarren adiñsuak, eta, hau bezala, churiz aphainduak.

**Hirurgarren Agerraldia.***Berak — Klara — Necnkatchak.**Klara* (Maidar besarkatzen duelarik).

Kantu bat badugu zuretzat guk ere.

*Maidar* (hiritz eta baztertzen delarik).

Choro ez bertzena!

*Nechkatchek*

(alegia narriotuak, inguratzen dute Maidar eta buruz jauresten, kantatzen dutelarik).

Herriko lore  
 Bereziena,  
 Ethorri gare  
 Chuchen chuchena,  
 Lehen bai lehen,  
 Etche huntarat,  
 Erregiñaren  
 Lausengatzerat.

*Maidar* (hiritz, choroki).

Choratu zaizte . . .

*Nechkatchek.*

Sasi denetan,  
 Erran daukute  
 Choriek betan:  
 Beiala zuazte !  
 Maiderre badu,  
 Gaur ekharria,  
 Mantaliñ pondu  
 Choragarria.

*Maidar.*

Bai ! Amatchiren emantz berria.

(sehi bati) Indazu hunat Maria . . .

*Nechkatchek.*

Maiderrrek badu,  
Gaur ekharria,  
Mantaliñ pondu  
Choragarria!

*Maiderr.*

Choragarria . . .

Sehiak mantaliña ekharri du eta, hartaz, Maiderrri bere adichkidiek estaltzen diozkate burua eta sorbaldak, hirriz hari delarik.

*Nechkatchek* (eskuak tinkaturik).

Beha zazue: Dantela fiñez  
Egiña denez !  
Beha zazue: Ama birjina  
Ez den hau, dena!

*Maiderr* (gero eta gihiagoka hirriz).

Choratu zaizte . . .

*Nechkatchek.*

Sasi denetan  
Erran daukute . . .

*Maiderrrek.*

Choratu zaizte !

*Nechkatchek.*

Choriek betan :  
Beiala zuazte . . .

*Maiderr.*

Choratu zaizte !

*Nechkatchek.*

Maiderrrek badu,  
Gaur ekharria,

E. Decrept,

Mantaliñ pondu  
Choragarria.Batian ***Maid***er (batian).Bai! Amatchiren  
Emantz berria.*Klara.*Nahiz dabillkan bisai gohorra,  
Amatchik ez du bihotz idorra.*Maid*er.Ezagutzen bazindute  
Harriturik zindauzkete. (Ichiltze bat.)*Maid*er (ezti eta arraiki).Amatchiren bihotza  
Beretzat da borthitza.  
Ez du ikhusten gaitzik  
Dakharkiguna baizik.  
Hola, alabatchiak  
Dituen miñ ttikiak  
Bethi agertzen zaizko  
Amatchik jasaiteko . . .  
Etzautzue hoi bitchi?  
Zoin ona den Amatchi !*Nechkatchek.*

Zuk baituzu merechi . . .

Berrogoi eta hamar urthetako gizon gorrast, gizen, hartzi bat, athorra mahunka has, gerrikua dilindan, agertzen da ostatuko athian: Chanchiñ da.

### **Laurgarren Agerraldia.**

*Berak — Chanchiñ.**Chanchiñ* (airepuskan).

Ongi errana! Nik ere uste dut emantz bat pollita egiñ niola, Chileratekuan, Amatchiri, alabatto hau haren eskuetan utzirik.

*Klara.*

Ziñez ! Handik itzulzian egiñ zindiona baño, zure presuna maitagarria emanez.

*Maidier.*

O! Klara!

*Chanchiñ* (nasaiki).

Zer nahi duzu erran, haur ederra?

*Klara.*

Hemen egiten duzunarentzat . . . han egon zintazkeela.

*Maidier.*

Iklus! Iklus!

*Klara.*

Horren alde jartzen zare . . . zuzen da. Zure aita delakotz. Bañan, ez dautazu zinzurrian sarraaziko behiñ errekarat uzkali eta berritz ere uzcalliko zaituztela, ezpauzue etchetik urruntzen.

*Chanchiñ*

Uzkalli? Uzkalli? Laster errana da. Eziñ bertziak egiten du gure ohia. Batzuenzat bezala, estropua ene alde gertatu balitz . . . ahurka erabilliko nituen unza urhiak . . . Purrustaka!

*Klara.*

Prat! Askì zinduen lanari lotzia, eta ez bestari.

*Chanchiñ.*

Lanari, ni? Zertan zabillza? Lanian hari den ostalerik othe da nihun?

*Maidier* (eztiki).

Amatchi hari da.

*Chanchiñ* (sorbaldak alchaturik).

Emazte bat delakotz. Ongi atchikia den ostatuko jabiak ez du bertze egiñbederik, heldu direneri atsegiñ egitia baizen. Hekiekiñ



behardu jan, edan, musian hari, hizketan ere, noiz nola, asarratu gabe, eta azken hitza pagatzalleari utzi. Bertzalde, behar ditu izan janbide eta edanbide gaitzak, eziñ ase ditazkenak . . . eta kaskua berotzen bazajo ere ezdu galgarri behar. Nola nahi duzu talendu hoik guziak ardiets detzan, bertze lanetan hari bada? Ez, haur maitia: Aphal lezake bere burua, ostalerak, lanari jarraikiz. Herri bakotchian diren handienekiñ dabillanak behar du bere errunka atchiki, bera ere handienetarik baita.

*Klara.*

Iduriz bederen . . . eta tirriaz.

*Chanchiñ.*

Horrek ikhusterat ematen dautzu, hiri handi batian izatu banintz eta ez hamabortz ehun arimetako sasi huntan, ene fortuna egiñen nuela eta haukiena ere. — Nik, bihotz zabala baitut, ene ahidiak gozoki biziakiko nituen . . . nik . . . bai andre . . . besta egiñez eta alfer egonez.

*Kantatzen du.*

Ba ! Ni naiz ostalerra !  
 Airos, gizen, gothorra.  
 Jale, lizun; jokolari,  
 Hordi eta alferra.  
 Iruzki lausengu batek  
 Gorritu daut sudurra.  
 Gerriko gañetik gantzak  
 Zartarazi athorra !  
 Urhats guti derabillzkat  
 Gohor baitut hezurra.  
 Bañan — gizon zuhurra —  
 Hoberenaz hazten ditut  
 Sabel eta zintzurra . . .  
 Jainko onak eman bezat  
 Irauteko indarra! . . .

(Gaphelua atheratzen du burutik.)

Chanchiñ kantaz hari delarik, muslariak hurbildu dire eta inguratu dute. Hirriz eta eskuzartaz onhartzen dituzte Chanchiñen phersuak eta gero denek errepikatzen, zenbeit hitz kanbiaturik.

*Maidar.*

Hauchet da ostalerra !  
 Airos, gizen, gothorra.  
 Berak dion hiñeraño  
 Othe dugu alferra?  
 Ez bide zajo edanez  
 Hola pichtu sudurra?  
 Zer larderi derabillzkan?  
 Gantzak hautsi athorra! . . .  
 Ez egiñ ahal urhatsik  
 Gohor baitu hezurra !  
 Hau da gizon zuhurra?  
 Maiz atchikitzen baduzu  
 Zinzur hori idorra,  
 Emanen dautzu Jainkoak  
 Irauteko indarra ! . . .

### **Bortzgarren Agerraldia.**

*Berak — Katicha.*

(Jargi gurpilldun batian sehiak errestatzen dute Katicha farnesiatura.)

*Katicha* (Chanchiñi).

Bethi bera izanen zare zu: Lan eziñ bururatuzko bat egun izanki eta, hemen zaude, zu, laguntzarik eman gabe — ez neri ondikotz! — bañan ez eta ere ahizpari eta sehieri! Ederrago laiteke zure ganik lanari lotzia zure bizioen gorestia baño! Askí ezagutuak ditutzu.

*Maidar.*

O! Ama.

*Chanchiñ* (umillki).

Ez ditake hirri pichka bat egiñ?

*Chalbat* (hirriz)

Hé! Hé!

*Patziku* (trufant).

Bai zera?

*Katicha.*

Entzuten ditutzu?

*Chanchiñ* (asarratua bezala).

Hola balitz ere? Ene etchian naiz, eta petrenitzen dut nahi dutanaren egitia, jabe naizen tokian . . . Ah! . . .

Amatchi, suhardura gorrian, sartzen da.

### Seigarren Agerraldia.

*Berak — Amatchi.**Amatchi* (boz garratzez, betezpalak tinkaturik)

Zure etchian diozu? Erradazu berritz?

*Chanchiñ* (ahalkatua).

Amatchi !

*Amatchi.*

Erradazu oraño zure etchian zarela! . . .

*Chanchiñ*

Gurian . . .

*Amatchi* (fuliatsu).

Ene etchian zare — aditzen nauzu? — eta ezpalire hauk (*erakhusten ditu Maider eta Katicha*) etzintezke oren bat gehiago hemen egon. Asia naiz, lephoraño, zu bezalako alfer handi baten haztiaz ! Zu bezalako zirzill baten ! . . .

*Chanchiñ*

Amatchi !

*Amatchi.*

Nola? Botilla bethetzerat igorri eta, bezperetarik lekhora prest izan gaitezen, hemen atzematen zaitut espantuka hari?

*Chanchiñ*

Ba othe dakit . . . nik . . . botilla bethetzen?

*Patziku (hirriz).*

Hori . . . etzizautan gogoratuko . . .

*Kantatzendu.*

Manatu bazindu  
Botilla husteko  
Etzen hunako . . .

*Denek.*

Etzen hunako.

*Patziku.*

Egizazu kondu  
Chanchiñen gustuez :  
Botilla hustuez  
Ez du acholarik.

*Denek.*

Ez du acholarik.

*Chanchiñ (arraiki).*

Ez dut acholarik.

*Chalbat (Amatchiri).*

Emotzu betherik.

*Amatchi — Maider — Katicha.*

Betherik? Betherik?

*Chalbat.*

Emotzu betherik :  
 Duzu ikhusiko,  
 Ehunka husteko,  
 Ez dela holako  
 Bertze langillerik  
 Hunat agertuko.

*Chanchiñ (narrioki).*

Ekatzu betherik :  
 Duzu ikhusiko,  
 Ehunka husteko,  
 Chanchiñ bezalako  
 Bertze langillerik  
 Ez dela hunako.

*Batian denek.*

Emanez betherik,  
 Dugu ikhusiko,  
 Ehunka husteko,  
 Chanchiñ bezalako  
 Bertze langillerik  
 Ez dela hunako.

*Amatchi.*

Nun ikhus holako  
 Ez acholaturik?

*Maidar.*

Ez da gizon gaichtua.

*Katicha.*

Gazte danik haurtua.

*Amatchi.*

Zer ? Ez acholatu ?  
 Bañan eskerrak daizkot bihurtzen  
 Haurtasun hortaz egiña gatik.

Ezpalitz hola izan haurretik  
Haur maitetto hau neria ez baitzen.

*Denek.*

Arrazoñekiñ ditu bihurtzen  
Bere eskerrak haur handi horri,  
Ezpalitz goizik ergel erori  
Amatchirena Maider ez baitzen.

Batian

*Chanchiñ.*

Arrazoñekiñ ditu bihurtzen  
Bere eskerrak Chanchiñ gaizuari :  
Ezpalitz goizik ergel erori  
Amatchirena, Maider ez baitzen.

*Patziku (gizoneri).*

Guazen gure hamarrekotarat

*Chalbat.*

Egizue ni gabe. Banua aldarerat ene gizonekiñ.

*Patziku (Chanchiñi).*

Hi, beraz.

*Chanchiñ*

Bardiñ. Atsegiñ egiteko.

*Amatchi (harritua).*

Nola? Arras sorrajo zare beraz?

*Patziku (hirriz).*

Aski . . . Aski . . . Hua hire botilletarat.

Emaztekiak eta Chalbaten langilliak aldarerat doazi.

*Klara.*

Bazatoz, Maider ?

Katicha etchian sartzen dute.

*Maider.*

Guazen.

**Zazpigarren Agerraldia.***Amatchi — Chalbat — Chanchiñ.*

Gibelian gizonak. — Aldarian emaztekiak, nechkatchak, haurrak eta Chalbaten laur langille.

*Chalbat.*

Banua lanerat.

*Amatchi (Chanchiñi).*

Eta zu?

*Chanchiñ.*

Bai . . . bai . . . Ez ditake zurekiñ hatsik ere har! Of!  
(Sartzen da.)

**Zortzigarren Agerraldia.***Amatchi — Chalbat — Maider (aldaretik).**Amatchi.*

Zer Kurutzia?

*Chalbat.*

Botazazu lurrerat.

*Amatchi (hirriz).*

Lagunduko nauzu alchatzen . . .

*Chalbat.*

Nik ?

*Amatchi.*

Ba. Orai, Maider handitua daukat. Agindu dautzutan bezala, orai duela sei urthe, harena aldaratu eta niri asma dezaket.

*Chalbat (harritua).*

Zuri ?

*Amatchi (hirri borchatu batekiñ).*

Zertan zaude? Ahantzi dukezu nik agindua?

*Chalbat.*

Ahantzi? Ahantzi?

*Maidar* (zulubitik).

Chalbat ! Zato ! Zure beharra banuke lore zenbeiten ezartzeko. —  
Ez naiteke hel . . .

*Chalbat* (Amatchiri).

Diozunaz, gero mintzatuko gare, Gachucha.

(Badua.)

*Amatchi.*

Zer derabill goguan? Bozkarioak nahasi othe dio burua?

Burua dudetan higitzen du harat eta hunat eta etchian sartzen da. Sukaldian ageri da baten eta bertziaren manatzen. Neskatuak iragaiten dire, eskuak bachera garbiz betherik. Bertze sehi batzuek botilla betiak ematen dituzte mahañ baten gañian.

**Bederatzigarren Agerraldia.***Maidar — Chalbat.*

Emaztiak eta nechkatchak hari dire soka arrimatzen pachetetan. Chalbaten langilliek pachetak landatzen dituzte, haurrek belhar eta lore hostuak bidian metatzen dituztelarik.

*Maidar*

(ezpel soka bat Chalbati ematen diolarik).

*Kantatzendu.*

Jautsazazu ezpel hori

Oihalaren gañ gañetik.

*Chalbat*

(zurubirat igaiten delarik ezpela harturik)

Bai. (Itzaten du ezpela.)

*Maidar.*

Abantzu naiz erori

Astian zure zurubitik.



*Chalbat* (alegeraki).

Zu, Mainer, gure lanetan?

*Mainer.*

Zertako ez, batzuetan?

(Zangotan duen otharre batetik helarazten diozka Chalbati arrosa churiak.)

*Mainer.*

Orai, lau arrosa churi.

*Chalbat* (arrosak ichkilimekiñ lotzen dituelarik).

Ezpel ferde, oihal gorri,

Arrosek Mainer iduri.

*Mainer* (hirriz).

Ikhasi duzu koplaka? (arrosa hañitz, gorri  
eta churi, ematen diozka).

*Chalbat.*

Cho! Arrosak bat banazka.

*Mainer* (urhundik lorien ederbideari behatzen duelarik).

Urhe, gorri, churi, ferde!

*Chalbat.*

Mainer heltzen bada, gorde . . .

*Mainer* (boza eziturik, ematen diozka arrosa gorriak).

Gorri-gorriak gañ hartan.

*Chalbat.*

Baditutzu ezpañetan

Hauk bezain kolore dunak.

*Mainer* (hirri tiki batekiñ).

Nun dabillza erostunak?

*Chalbat* (zaldiz zurubiaren gañian).

Ichtaklok bada bat hemen

*Maidar* (boza oraño ezituagoa).

Egia ezpada: Amen!

*Chalbat* (zurubitik jausten da baratche).

Eta erran baut egia?

Maiderrekin burua aphaltzen du deus ihardetsi gabe. Chalbatek azpitik behatzen diozka begiak.

*Chalbat.*

Erakuts eni begia ! . . .

Maiderrekin eztki behatzen dio eta, eskua pichka bat dardaretan, bere golkhotik khendu eta, eskaintzen dio arrosa bat Chalbati.

*Maidar.*

Hor duzu azken arrosa.

*Chalbat.*

Maidar ez hunenzat lotsa . . .

(Ichiltze labur bat.)

*Chalbat.*

Arrosa hunen tokia

Ez da bertze kiñ, maitia . . .

Etsitzeko da, nun nahi zuk bilduaren uztia:

Hobe zaut daukan hazia

Heze delarik bilzia.

*Maidar.*

Mintzo zitzaizkit garbiki,

Bañan enetzat ez aski.

Zer sentimendu sorthu den zure ariman . . . banaki.

Aithor nautzuke hobeki

Nerian zoin zaitan ibillki.

*Chalbat.*

Ezda hitz aski argirik  
Zuretzat berech nukenik

(eskua bihotzaren gañian)

Gorri zintazke, beriala, hunek diona entzunik . . .

Jakiñen duzu lehenik  
Zure bihotzak erranik.

*Maidar.*

Iduritzen zait naizela  
Chori choro bat bezala.

Josten ditutzun hitzetan ez utz holako itzala . . .

Siñetsiko dut berzela  
Doi doia maite nauzula.

(Chalbatek eskuak hartzen diozka. Arrosa esku tinkatuen artian dago chutik.)

*Chalbat.*

Ba maite zaitut, ene arrosa . . .

*Maidar* (bere burua Chalbaten besoari utzia).

Orai naiz, Chalbat, orai urosa!

Muslariek denbora hortan partida akabatu dute. Urhutzen dire beha zauzin gizonak. Patzikuk sosak billtzen ditu eta oihu egiten Amatchiri.

*Patziku.*

Amatchi ! . . . Zato!

*Amatchi* (barnetik).

Berehala.

**Hamargarren Agerraldia.***Berak — Amatchi.*

Amatchi atheratzen da etchetik zalu, bañan ikhusten dituenian bi amorosak, beren amodioan galduak, eziñ garhaituzko oñhazi batek korropillatzen dio bihotza. Izkiritu izigarri bat egiten du eta bortchatua da mahañ bati atchikitzerat ez lurrerat gateko.

*Amatchi* (izkiritu bat).

Ah! . . .

Patziku chutitzen da eta, chutitziarekiñ, Chalbat eta Maider ikhusten ditu eskuak gurutzaturik.

*Patziku.*

To! To! To!

Maiderek ere entzun du izkiritua eta behatzen du nundik heldu den. Orduan ikhusten du Amatchi, churi-churia.

*Maidar* (lasterka Amatchiren ganat).

Amatchi! Amatchi ! Zer duzu? Osaba zato! . . .

Patziku hurbiltzen da. Amatchi flakaturik bezala dago. Maider, izitua, oihuka hari da barnekueri.

Ama! Maria! Zatozte!

Neskatuak heltzen dire, gero Katicha; azkenik Chanchiñ

*Amatchi* (atartzen balitz bezala).

Zer da? Zer gerthatu da?

*Maidar* (loriatua).

Amatchi gaichua, sofritzen zinduen?

*Amatchi* (boz gohor batez).

Nik sofritaen? Ah! ah! Sofri dezaket bada nik? Emazte othe naiz sofritzeko?

*Maidar* (Amatchi besarkaturik).

Amatchi, koloriak gan zauzkitzu . . .

*Amatchi* (borthizki, bere alabatchiaren besotarik atheratu eta).

Utz nezazu! (Sehieri): Eta zuek zer hari zaizte? Ez duzue lanik aski ditudaneri ohartu gabe? Zuazte zuen egitekoerat! —

Chanchiñ agertzen da, dabantal urdiñ bat soñian eta botilla erdi bat eskuan, ezpañak chukatzen dituelarik.

*Amatchi* (Chanchiñi).

Athera zaite ene bichtatik! Botillak utzatzu eta zuazi norat nahi.

Chanchiñek beriala, bere dabantala khendurik, hartzen ditu igandetako gañekua eta gaphelua ezkaatzian, eta badua, athorra mahunka has, elizako alderat, bidian iragaiten direnekiñ. Katicha, ichilik sartzen da etchian.

*Amatchi* (Patzikuri).

Zenbat botilla ditutzue?

*Patziku.*

Lau, eta lau kafe . . .

*Amatchi.*

Hiru libera eta lau sos.

*Patziku* (sosak ematiarekiñ).

Oritzu.

Amatchi, dabantalaren sakolan sosak sarthu eta, sartzerat dua. Bidian, Mainerrek, nigarrak begietan, geldiazten du.

*Maider* (eztiki).

Amatchi . . .

*Amatchi.*

Naltzurra!

(Sartzen da.)

### **Hamekagarren Agerraldia.**

*Maider — Patziku.*

Agerraldi hau eta bertzia iragaiten direlarik, bethi bidetik elizako alderat baduazi jendiak, igandetako jauntzkuretan pro sioneko gazteria galtza zuri, gerriko se; da, athorra loratuetan batzuek ere badituzte buruko lore dunak galtzetan chilinchak etc.

*Maider* (nigarrez).

Maltzurra? Zer maltzurkeria egin diot bada nik, osaba?

*Patziku.* (trufaz).

Bere arnorat ura eman, dudarik gabe.

*Maidar.*

Zerbeit badu. Jakiñ nahi dut.

*Patziku.*

Ez beldurrik izan. Aski goizik jakiñen duzu.

*Maidar.*

Mirikua behar balu, osaba?

*Patziku* (hirriz).

Beharrago luke zurgiña !

*Maidar* (iziturik).

O! Kutcharen egiteko? Ez da hortan ! . . .

*Patziku*

Kutcha ba . . . Bizien kutcha: Buhurdia mihi siekiñ.

*Maidar.*

Etzaitela trufa, osaba. Egi azki pairatzen du, Amatchik, eta, preseski ni hoin dohatsu naizenian . . . Zertako hori?

*Patziku.*

Urhia eta zoriona  
 Behar dire ongi zaindu:  
 Batek beretzen duena  
 Bertziari hartzen omen du.  
 Ez baiditazke gizonak  
 Aberats eta dohatsu  
 Izan denak . . .  
 Maidar ! Maidar ! Egiñ kasu,  
 Orai eta sarri,  
 Egungo zorionari.

*Maidar.*

Izituko naiz, osaba . . .

*Patziku.*

Beharba!

Zurekiñ atchik dukezu . . .

Hoinbertze dohañ ditutzu :

Gazte, pollit, maitagarri . . .

*Maidar* (osabaren erraneri asmatzen duelarik).

Kasu, orai eta sarri,

Egungo zorionari . . .

Behar dire ongi zaindu

Urhia eta zoriona . . .

Batek beretzen duena

Bertzeri hartzen omen du . . .

(osabari) Hartu othe dut norbeiti?

*Patzikuk* (ihardetsirik ez eman nahiz).

Bihotz bero, bisai ezti . . .

Hoinbertze dohañ ditutzu :

Zurekiñ atchik dukezu ! . . .

*Maidar.*

Ez baiditazke gizonak

Aberats eta dohatsu

Izan denak . . .

Maidar ! Maidar ! egiñ kasu . . .

(iziturik) Ene zoriona

Hill nahi duena

Hor nunbeit dabill . . .

Hemendik hurbill ?

*Patziku* (berritz).

Urhia eta zoriona etc.

*Maid*er (batian).

Ene zoriona  
Beharko dut ongi zaindu (etc.).

Biek bardiñ kantatzendute eta iragaiten dire hejako alderat; Chalbat biderat heltzen zaiote.

### **Hamabigarren Agerraldia.**

*Patziku* — *Maid*er — *Chalbat*.

*Chalbat*.

Amatchik zer zuen ?

*Maid*er.

Maltzurra erran daut !

*Chalbat*.

Zuri ?

*Patziku*.

Bo ! Iraganen zaio duen hisia ! . . .

Ezkillak jotzen hasi dire. Teatrian diren jende guziak baduazi elizarat. *Maid*er aldaratzen da, harrasiaren gañian utzi zuen mantaliñaren hartzeko.

*Chalbat* (*Patzikuri* baratche).

Ez da flakatu?

*Patziku*

Bai! bai ! Antolaatzik gauzak bezperak erran arte. Bertzenaz, gaizki zuak, muthill, hire hauzia . . .

*Maid*er hurbilldu da.

*Patziku*.

Gaugoiti, jaun erretorak bere chantria berantetsia duke. Kecha gaitzen. (Badua aitziña.)

*Maid*er.

Gurekiñ zatoz, *Chalbat* ?



*Chalbat* (baratche).

Ez, ene maite maitia. (Gorago) Hemengo lanak behar ditut akhabatu.

Maidar badua, kongregazioneko nechkatchekiñ. — Ez dire zenbeit hastape-neko emazteki eta Chalbaten langilliak baizik gelditzen.

### **Hamahirugarren Agerraldia.**

*Zenbeit emazteki — Chalbaten langilliak — Chalbat.*

*Chalbat* (langillieri).

Zuazte zuek ere bezperetarat. Proasioniarekiñ itzuliko zaitze eta hemen baratuko, aldariaren urratzeko eta pusken sartzeko.

*Langille batek.*

Ongi da.

(Baduazi langilliak.)

### **Hamalaurgarren Agerraldia.**

*Emaztekiak — Chalbat.*

Orai, emaztekiak hari dire ihi eta lore barrajutzen bidiaren gañian. Biek hedatzen dute oihal hertchi churi bat. Azkenik, mihisiak bidiaren barneko aldetik sokheri estekatzen. Bidia, orai, arras gordia da eta emaztekiak ez dire ageri.

*Chalbat* (bakharrik).

Chalbatek duda liphar bat badu. Gero harrasiaren gañetik jauzi egiten du eta sartzan da ostatuko barrokian, diolarik:

Guazen aintziñat ! (oihu) Gachucha!

### **Hamabortzgarren Agerraldia.**

*Chalbat — Amatchi.*

Amatchi etchetik atheratzen da baratche, itchura hitchian. Itzultzen da ezkaatzian, begien chukatzeko, Chalbatek ikhusten ez duelarik, zeren, Amatchi agertziarekiñ, Chalbatek, ahalkez, bere burua itzuli baitu.

*Amatchi* (boz idor batez).

Zer nahi duzu?

*Chalbat.*

Badakizu orai zertako ez dautzutan aichtian ihardetsi. Ez nuen uste aspaldiko erranetaz orhoitzen ziñela.

*Amatchi.*

Ez gezurrik . . . Eztut nik deus ahanzten eta ene hitza bethi eta nor nahirenzat atchiki dut. Ez nuen, nik, uste, Chalbat, kanbiakorra ziñela.

*Chalbat.*

Kanbiakorra? Amatchi . . .

*Amatchi.*

Amatchi ? . . . Ene zaharzeko ematen dautazu izen goiti hori? Eztut nahi enzun! Ez naiz gihiago nihoren Amatchi. Zuk ebatsi dautzatzu ene amodioa eta ene alabatchia. Hau atchikazu, bertzia zangopian ibilli eta.

*Chalbat.*

Zoin garrazki minzo zaren ! Barkhamendu galdetzen dauzut. Uste izan dut maite zintudala. Gaztiak engana ditazke. Gero ezagutu dut zuretzat naukan sentimendua eta amodioa bia zirela. Zure alabatchia ikhusten nuen egun guziz handitzen eta edertzen: Haurra zelarik maitagarri, nechkatcha egiñ eta maitagarriago! Zu ezagutziarekiñ Mainer ezagutu dut, zuk maitatziarekiñ Mainer, nik ere maitatu dut eta . . . pichkaka . . . pichkaka . . . ikhustiarekiñ Mainerrek ama bat bezala maite zintuela, zu, iduritu zait eni ere — nahiz abantzu zure adiña dutan — ama bat bezala behar zintudala maitatu. Barkhaguzu bieri. Ez dugu deus egiñ amodioaren sorrazteko ! . . . Bera ethorri zauku.

*Kantatzendu.*

Amodioa sartu da gutan  
Uda berriko gau eztiatan

Zure gerizan gindauzilarik . . .  
 Egunez egun, guk jakiñ gabe,  
 Gathe lehena porroskaturik,  
 Gure bihotzez egiñ da jabe . . .

Ene ahotik etzen oraño  
 Aingeru horren beharriraño  
 Erre ziozaken hitzik alchatu . . .  
 Eta astian, eztakit nola,  
 Gure eskuak dire tinkatu  
 Amodioak nahi bezala.

*Amatchi.*

Ez aitzakirik enetzat billa . . .  
 Hitz ezitzeko zare abilla.  
 Nik ere ditut zure ahotik  
 Aspaldi enzun . . .

*Chalbat.*

Gachucha !

*Amatchi.*

Hatik !

Ez naiz zuk uste  
 Duzun emazte  
 Trufatzen dena . . .

*Chalbat.*

Bañan . . .

*Amatchi.*

Ez zaizte

Ostatu huntan biak sartuko:  
 Ez zu, ez hura !

*Chalbat.*

Ez dut holako  
 Nahirik izan. Bien hazteko

Nihau azki naiz. Ez ! Diruari  
Behatu banu, etzait iduri  
Maidarren ganat ganen nintzala.

*Amatchi*

Oh! Chalbat! Chalbat! Bihotz ahula!

Amatchik „Ez aitzakirik enetzat billa“ kantatzen duenian, ezkillak berritz hasten dire, proasionia atheratzen delakotz elizatik.

*Chalbat.*

Amodioa, guk jakiñ gabe,  
Gure bihotzez egiñ da jabe.

*Amatchi*

Ez aitzakirik enetzat billa . . .  
Hitz eztitzeko zare abilla.

*Chalbat.*

Ene ahotik etzen oraño  
Aingeru horren beharriraño  
Erre ziozaken hitzik alchatu.  
Eta, astian, eztakit nola,  
Gure eskuak dire tinkatu  
Amodioak nahi bezala.

Batian

*Amatchi.*

Zure ahotik etzen oraño  
O Chalbat ! ene beharriraño  
Beizik holako hitzik alchatu . . .  
Eta astian, ikhusiz nola  
Zuen eskuak ziren tinkatu  
Hor flakatu naiz haur bat bezala.

Bere burua phausatzen du pachet baten kontra eta nigar egiten du.

### Hamaseigarren Agerraldia.

Orai enzuten dire teatriaren gañian proasioneke soñulariak: Trunpeta, atabal eta chirolak. Gero Gizonak.

*Gizonak* (hastapeneko kantika).

Yesus on illki zauku aldare barnetik etc.

*Denek.*

Zer mirakullua ! etc.

---

Soñulariak teatrian iragaiten dire, nechka ttikien ondotik. Mihisien gañetik ageri dire banderak, gizon aphainduen harmak, noizian behiñ buruko loreduan bat edo bertze, atabal nausiaren makhilla. Gero kongreganiñsten bandera churia, agertokiaren erdian baratuko dena arrosa hostuak airian, ageri ez diren haurrek bothatzen dituztenak; azkenik, pabillunaren lumak, baidoazi hejaren gibeleraño eta han baratzen.

*Nechkatchek.*

Heda oihal churiak bide bazterretan.

Gure gorphutzak eman falda churietan.

Artik jainko jaunari lore churienak

Hoin churi egiñ detzan gizonen arimak.

(Denek) Zer mirakullua! (etc.)

Nechkatchek kantatzen dutelarik, Chalbat hurbilldu da proasionerat, kongregazioneke banderari buruz. Mihisiak aldaratzen ditu pichka bat eta Maider, banderaren alchatzallia, artetik ageri da.

Benedizioneke chilinchak egiten du bere soñu ariña. Denak belhaunikatzen dire, eta gero chutitzen.

*Patziku* (Kantatzendu).

Zer mirakullua! etc.

Denak jarraikitzen zaizko eta proasionia aintziñat doa.

### Hamazazpigarren Agerraldia.

Chalbaten langilliak sartzen dire eta nechkatchak gan orduko, aintziñeko mihisiak khentzen dituzte, emaztekiek lagundurik. Orai bidia ageri da. Proasionia ezaun da, urruntzen delarik. Elizako bidetik sartzen da: Lehenik haurrak, gero

nechkatchak, gero gizon aphainduak, gero arrosa artikhitzalliak; haukien bi sahetsetarik gizon aphainduak oraño.

Ezkillak bethi hari dire, eta hola estalkia jautsi arte.

*Urrunchko gizonek kantatzen dute.*

Jesus oua illki da (etc.).

*Urrunchago Nechkatchek :*

Heda oihal churiak (etc.).

Aphezak eta pabilluna agertu gabe, jausten da agertokiaren estalkia.

*Zathi lehenaren bururantz.*

### **Bigarren Zathia.**

Toki berian eta oren baten buruan.

### **Lehen Agerraldia.**

Chalbaten langilliak eta Chalbatek aldaria barraiatzen dute eta phazotak atheratzen dituzte. Emaztekiek mihisiak billzen eta malgutzen. Untziak eta aphaindurak beren etchetarat erematen. Ostatuko sehiak, aldiz, dafallak hedatzen dituzte gibelesko mahañen gañian eta, echkerretarik, asto batzuen gañian, mulchatzen botilla arno eta limonadak.

Amatchi, arras ilhundua, gemen handirik gabe hari da sehien manatzen, sukaldeko leihotik, eta zalu sartzen da.

#### *Kantariak.*

Unzi, belus, oihal fiñak,  
 Lore zillarrez egiñak ;  
 Ogi buru, mahats mulkho  
 Aldare huntan zauztenak  
 Jainkuaren ohoratzeko, . . .  
 Orai, lehengo kutchetan  
 Sarthuko zaizte betbetan,  
 Eta, egun beziñ frechko,  
 Bertze besta berrietan  
 Zaizte argirat illkiko.  
 Unzi, belus, oihal fiñak,  
 Lore zillarrez egiñak,

Ogi buru, mahats mulkho,  
Zauzte orai beziñ frechko

(Variante: Dathorren) Heldu den urtheko.

Urruntzen dire. Bi emazte eta bi langille badaudez. Chalbat jarraitzen da bere bertze gizoneri eta hejan sartzen dituzte aldare eta phazotak.

Amatchi agertzen da ezkaatzeko athian.

### **Bigarren Agerraldia.**

*Berak — Amatchi.*

*Lehen emaztiak.*

Amatchi ? Zure untziak  
Norako diren . . . errazu.

*Amatchi.*

Untzirik ez dut.

*Bigarren emaztiak.*

Behazu.

Aldarian diren guziak  
Zuk eskañiak ditutzu.

*Lehen langillia.*

To! Amatchi ez orhoitzen.

*Lehen emaztiak.*

Etzajo ba maiz gerthatzen.

*Amatchi (ez horturik).*

Ezar atzu sellaruan.

*Bigarren emaztiak (harriturik).*

Hor bai ! Nor nahik hausteko !

*Amatchi (zainhertsu).*

Nahi dukezun chokhuan  
Ez naiz orai hortarako . . .

Lehen emaztiak etchia erakusten diolarik.

Hor ongi ditazke naski . . .

*Amatchi* (nardatua).

*Jainkuatz! Jainkuatz! Jainkuatz! Aski ! . . .*

Amatchi gan da, asmatsuturik atheladaraño eta ez da handik mugitzen.

### **Hirurgarren Agerraldia.**

Berak — Bañan Amatchi ichilik eta Chalbaten langilliak, ostatuko sehiekiñ eta emaztiekiñ araldatuak.

*Emaztiak* (aphal).

Izan behar du zerbeit goguan  
Unzi haukien arbujuatzeko.  
Etzen agertu nihoiz holako  
Trenpu choruan.

*Gizonak* (eskarnioz).

Baditazkela gure munduan,  
Dirua lekhat, gauzarik asko  
Indar hobenen atzarrazteko  
Duke buruan.

Denek gizonen koplak errepikatzen dute. Amatchi aitziañatzen da eta malzurki lehen koplako bortz phersu azkenak kantatzen dituzte.

Unzi, belus, oihal fiñak etc.

Amatchi begiz jarraitzen zajote, aldare alderat doazilarik, eta, batere ohartu gabe, badoha berriz ere athaladaren alderat.

### **Laugarren Agerraldia.**

Maider, nechkatchak eta nechkak bezperetarik itzultzen dire.

*Berak — Maidar — Klara — nechkatchak.*

*Klara.*

Zer begitartia daukazun, Maidar.  
Besta egunian etzauku eder  
Gure lagunik maitatuenak  
Ilhun detzan gau illhunak.



E. Decrept.

*Maidar* (hirri erkhaiz batekiñ).

Ez naiz ni, orai, aichtian nintzana?

*Klara.*

Argi eta legun, kantutto batekiñ  
 Nola doan urhandia,  
 Zuk ere zinduen, arrai eta ariñ,  
 Jarraiten zure bidia . . .  
 Bañan, zimurtzeko harek aski baitu  
 Ñare baten hegala,  
 Chori beltch bat deia zutan pulunpatu  
 Uraren barnian bezala?

*Maidar* (hunkitua).

Ez: Chori churi bat hasi da kantatzen  
 Kaiola hetsi batian.  
 Haren bozaz hurbill zitakenik etzen  
 Oraño gure artian.  
 Eta behazue nahasi ez naizen  
 Chori horren enzutian.

*Nechkatchak.*

Idekazu kaiola,  
 Chori hoi gan dadila  
 Lehen zagon tokirat.  
 Holako boz ederrik  
 Etzazula zutarik  
 Berritz utz hurbilzerat . . .  
 Gazteriak behardu  
 Hirriz burua galdu,  
 Sekulan atsekabez :  
 Beraz kanta dezagun  
 Eta ez gorri egun  
 Bi begiak nigarrez.

*Klara.*

Laster hor dire soñulariak.

*Nechkatchak.*

Egungo zaja churiak  
 Etchian utziren ditugu.  
 Eta, aldatu orduko,  
 Bricht batez gare hunako.  
 Biba gu! Maider ! Biba gu! —

Maiderek eztiki behatzen diotelarik, eskuz esku ematen dire, nechkatchak, eta itzulika inguratzen dute, kantatzen dutelarik.

Biba gu! Maider ! Biba gu! —

Nechkatchak urruntzen dire. Emaztiak eta Chalbaten langilliak aldareko azken puskak deramazkate. Chalbat agertu da doi doia hejako athian eta Maiderrri behatzen dio; bañan Amatchi itzuli baitzen, nechkatchak dantzan hari zirelarik, Chalbat gordetu da.

### **Bortzgarren Agerraldia.**

*Amatchi — Maider.*

Maider, etcherat sartzeko hiñian. Amatchi aintziñatu da eta begien erdirat behatzen dio bere alabatchiari.

*Maider* (izituchia).

Asarre zare óraño, Amatchi?

*Amatchi.*

Badut zeren. Hola eskolatu zaitut bada nik?

*Maider.*

Zer nahi duzu erran?

*Amatchi.*

Hau kopeta !

*Maider.*

Zertako mintzo zare hoin garrazki? Bazindaki zer bihotzmiñ deramatan proasionerat!

*Amatchi.*

Ez othe zaut aingeru bat hari? Uste duzu, ziñez, begirik eta zentzurik eztudala? Noiztik, zure amaren eta nere ichilik. Chalbatek burua nahasten edo itzultzen dauzu?

*Maidar* (harritua).

Ikhusi gaitutzu?

*Amatchi.*

Etzen gaitz ! Ahalkagarriak zuek ! Denen bichtan !

*Maidar.*

Gaizki egiten ginuen?

*Amatchi.*

Etzazula bada bildotch itchura hori har enekiñ? Eztakizu neskeri zillegi etzaiotela mutillen solas eztieri beharriaren ematia burasoen aitziniñan baizik? Eta zu? . . . Zer itsuseria!

*Maidar* (eztiki).

Nork asma zezaken zeletatzallerik bazitakela?

*Amatchi* (muthiriki).

Etzaituztet zeletatu! Ausartak zuek: Etzaitze zeletatzekuak! Aski zabalik zuen bihotzak hedatzen ditutzue . . . O ! . . . Orai arte, zenbeit aldiz astirokiago ahanzi ahal zaizte holako hitzketa galgarrietan ! . . . Nola erastatu naukezuen ! . . .

*Maidar.*

O! O! Zu, Amatchi? Hoinbertze maite izaki eta nik irriztatu behar zintudan . . . eta zer gatik? Egia da Chalbatek ez dautala hitzik aiphatu egun arte . . . Eta . . . eztakit nola menturatu ahal den, astian erran dauzkitanen erraterat. Eta nik nola ihardetsi diot? Siñets nezazu, Amatchi maitia: Garhait etzitaken indar gorde batek bat bertziaren ganat egotzi gaitu . . .

*Amatchi* (samiñki).

Hola? Lipar batez ? Gizon gazte baten hatsak berak choratu zaitu ? Ez eni holakarik saka! Aspaldian balakatua eta liluratua zare, chorittua ! —

*Maidar* (historik).

Zein dohakabe naizen zure damuztatzi az egite ustekabezko horren gatik: Jakiterat gaitzetsiko zinduela, ez nituen diozkatzun beharriak idekiko Chalbatez zinituen laudorioeri.

*Amatchi*.

Nik ?

*Maidar*.

Nola haur erorkor eta herbal bat egon zitaken, zuk hoinbertze prezatzen zinduen prezatzen gabe?

*Kantatzendu*.

Etzen zuretzat bertze gazterik  
 Herri guzian,  
 Chalbat zurgina bezalakorik !  
 Haren sortzian  
 Ausarki zaizkon aztiak eman  
 Dohañ leherra :  
 Beso hazkarra  
 Lanaren kharra  
 Gorphuz ederra . . .  
 Etzitzaiokeen hutsik hatzeman! . . .  
 Eta ni, orai, holako  
 Solasak utzi orduko  
 Beharritik bihotzerat  
 Bat banazka erorzerat . . .  
 Othoi! Amatchi zertako  
 Hoinbertze higuñtzen nauzu ?

(eskuak harturik) Othoi ! Othoi ! Erradazu ! . . .

Amatchik borthizki urruntzen du. Maidar dago bere tokian, irainztatua.

*Amatchi* (borthizkiago).

Ichilik zaude, malzurra.  
 Iduri eta elderra  
 Zure ahottuak gezurra  
 Bethi danik badario.  
 Hitzetan amultsuenak,  
 Lausengutan gozoenak,  
 Hirrietan eztienak  
 Etzauzkitzue kario . . .  
 Bañan badakit oraitik  
 Zer pekatu bihotzetik  
 Behar nuken, zuen gatik,  
 Deus bazindute balio . . .

*Maidar.*

Prezatzan nauzu itsura . . .

*Amatchi.*

Malzurra ! Maidar ! Malzurra !

*Maidar* (nigarrez).

Amatchi, behazu  
 Ene nigarren gezurra!

Chalbatek, nigarrez ikhusten duenian, sartzen da.

### **Seigarren Agerraldia.**

*Amatchi* — *Maidar* — *Chalbat* — *Katicha* (leihuan)

*Chalbat.*

Amatchi, barkha ezozu.

*Amatchi.*

Zertan sartzen zare zu?

*Chalbat.*

Ni naiteke hobendun !

*Katicha.*

Gachucha? Zer dun? Zer dun?  
 Bakia gan da hemendik . . .  
 Zerk ganazazidu? . . .

*Maidar (eztiki).*

Nik! —

*Chalbat.*

Ez zuk eta ez nik  
 Ez dugu hobenik . . .

Berritz kantatzen du lehen zathi hamaborztgarren agerraldiko kantua.

Amodioa sarthu da gutan  
 Uda berriko gau ez tietan.

*Chalbat eta Maidar.*

Zure gerizan gindauzilarik.  
 Egunez egun, guk jakiñ gabe,  
 Gathe lehena porroskaturik  
 Gure bihotzez egiñ da jabe . . .

*Amatchi (Maiderri).*

Amodioa agiñtzen zautan  
 Jaun hunek berak sei urthe huntan  
 Ene gerizan zindauztelarik . . .  
 Egunez egun, nik jakiñ gabe,  
 Gathe lehena porroskaturik  
 Zure bihotzaz egiñ da jabe.

Hiruek batian errepikatzen dute.

*Amatchi (fuliatsu).*

Amodioa agiñtzen zautan.  
 Jaun hunek berak sei urthe hautan! . . .

*Maidar* (harritua).

O! Chalbat! Chalbat ! Zer egiñ duzu?

*Amatchi.*

Zuri bezala hitz eder batzu  
Hoinbertze urthez erran onduan,  
Hori egiñ daut. Etzen munduan  
Zuetaz kanpo maita nukenik . . .  
Eta zuetaz behar dut ba, nik,  
Hola pairatu ?

*Maidar.*

Barkhatu.

Nik ez nakien.

Patziku eta Chanchiñ sartzen dire.

*Amatchi.*

Gezurti tcharra !

### **Zazpigarren Agerraldia.**

*Berak — Patziku — Chanchiñ.*

*Chanchiñ* (kantaz).

Zer derabillkate hor ?

*Patziku.*

Uharra ! . . .

*Maidar* (bere osabaren ganat hurbildurik).

Badakit orai zertako  
Izitu naizen osaba !

*Chanchiñ.*

Itsuskeri bat iñ dako  
Haur hunek, huni, beharba?

Zer da ba, Maider ? Holako  
 Amatchi dautzutanian  
 Berezi sor egunian  
 Etzauzke ba belhauniko  
 Ezpañik ideki gabe?

(Katicha      Hau laneko ahalgabe . . .  
 erakustiarekiñ.)

*Patziku* (hitza hausten diolarik).

Hi berritz lanak unhatzen . . .

*Chanchiñ* (ezpalu enzun bezala).

Hola bauzu sariztatzen! . . .

*Patziku.*

Utzak hortan, Llaru, hire predikua.

*Chalbat* (hastiatuki).

Ziñez . . . eman zaio ! . . .

*Patziku.*

Ez duk hau lekhua!

*Amatchi* (Patzikuri).

Ematen diozu, Maiderri eskua?

*Patziku.*

Ez batek, ez bertziak ez duzue hutsik:  
 Bihotzen heztallia — haur itsu bat ornen —  
 Berriki, hegalka, phausatu da hemen.  
 Zer egiñ zitaken hari buruz? Deusik.  
 Bakharrik aski da denen itzulzeko:  
 Semetchi, osaba, illoba, amatchi,  
 Adichkide, koñat, anai, alabatchi . . .

Denak on baitzaizko.

(Amatchiri) Ez amor eman mendekuari:  
 Haur itsua hor hirriz da hari ! . . .



*Amatchi* (saminki).

Hoin boheretsua delakotz, ezni ozaken erran haur itsuari kanporat ganzadiela! — Bañan etcheko andre bainaiz ni hemen, eztut onhesten jaun anderetto haukiek bethe dezaten ene egoitza beren zorionaz. Har bezate beren amodioaren zat bertze lekhukorik.

*Maidar* (othoiztuz).

Amatchi ! Amatchi !

*Amatchi* (idorki).

Aski zinkuriñ! Lanian badakizu. Zure erhieki irabaziko daukitzute behar ditutzunak.

*Chanchiñ.*

Eta gu? Katicha eta ni?

*Amatchi.*

Katicha alabarekiñ . . . Zu, giza gaizua lanerat. Chalbatek zur karraiatzalle bezala ahal duke zure doia.

*Chanchiñ.*

Ez dut baitezpada lan hañitz behar denboraren iragaiteko.

*Patziku* (hirriz).

Hori! . . .

*Chanchiñ.*

Horra, Maidar, zer dakarkaten zure balentriek!

*Chalbat.*

Gure ezteiak aitzinatuko ditugu, Maidar.

Maiderekek (gogoetan baitzagon bertziak mintzo zirelarik) bihotz jauzi bat badu Amatchiren alde.

*Maidar.*

Etzaitut beraz ikhusiko, Amatchi?

*Amatchi.*

Ez zuk eta ez bertzek. Ostatuaren atchikitzekeo kharra gan zait. Denak salduko ditut eta ganen naiz, han bakharrrik bizitzeko, chokho galdu batetarar.

*Patziku.*

Amatchi ! Amatchi ! Etzaitela mendeka !

*Amatchi* (izkiritu dolorotsu batekiñ).

Zer egiñ behar dut bada? Denen asetzeko baizik ez nintzen! Nihork ez nau maitatu !

*Maidar.*

Nik ! Nik ! Eztut nahi paira dezazun. Zurekiñ bizi nahi dut, eta Chalbatek trabatzen bazaitu, Chalbat utziko dut zurekiñ egoteko!

*Chalbat* (samiñki).

Ez bide da zure amodioa beroenatarik ! Zer? Zuri jarraitzeko utzi ditut Amatchi eta Amatchiren ontasunak eta holako eskerrak bihurtzen dauzkidatzu?

*Maidar* (choratua).

Chalbat! Chalbat! Ergeltzen hari naiz! Zu ala Amatchi: nor behech dezaket? Eta, orai, biek enetzat dituzte beren laiduak! Ama! Ama ! Zuk bederen badakizu Maidarrek eztuela ichendurarik.

Badua lasterka, hipaka, bere amaren besoetarar.

*Katicha.*

Zato ene ganat, haur maitia. Ez naiz ni maite ditutzunetaz bekahtzuko . . . Amak ez dire bekahtzen.

Biak besarkhatuak daudez.

### **Zortzigarren Agerraldia.**

Proasionian aphaundurik zauden gizonak sartzen dire, chirolari eta atabalariak aitziañian. Gibeletik, gizon emazte eta haurrak. Echkerretako atheladatik sartzen dire Maidarren adichkidiak, beren jauntzkura igandetaketan. Maidar, oraño churiz

aphaindua, sartzen da etchian eta agertzen da balkoñean leihuen idekitzeko. — Gero, bere gelako barne leihuak hesten ditu.

Harrasiaren eta ostatuko alkien gañian jartzen dire ikustalliak. Zenbeit hejako paretari bizkharrez daude.

Dantzak hari direlarik, *Kantariak* diote:

Hor dire soñulariak (bis) (Variante)  
 Jo zazue gora dantzariak ! (Lau alderditarik ethorriak)  
 Hor dire soñulariak (bis)  
 Jo zazue, neska gizon gaztiak (Jo zazue gorago dantzariak)  
 Ariñki lerra zaitetze . . .  
 Ariñki jauzi egiñ . . .  
 Izanez gai eta gazte,  
 Ariñki josta behiñ . . . (Jo goiti ariñ - ariñ)  
 Adiñ hortan, nihork ez du zangarretan miñ !  
 Hor dire soñulariak (etc.).

Gero muchikuak eta azkenik denek fandango.

#### *Fandango.*

Fandangotan hari direlarik, *Kantatzen dute zenbeitek.*

Bizia den bezala harzak, muthilla!  
 Zelajez bethi ez badabilla,  
 Etzokala zoroki makhurrik billa,  
 Baditik oren eztiak . . .  
 Hobenez egun,  
 Goza dezagun,  
 Bihar zatozkek bertziak . . .  
 Bizia den bezala harzak mutilla :  
 Ez gaitut gaizki hasiak.

### **Bederatzigarren Agerraldia.**

Danzak akhabatu onduan, gizonak ostatuko atharian sartzen dire. Ilhunzeria jausten da. Sehiak, Chalbaten langilliek lagundurik, pichten dituzte gabargi benezianoak eta kapenako gaphiriotarik dilindan ematen.

Patziku, Chanchiñ eta Chalbat jartzen dire lehen mahañaren inguruan. Bertze gizon eta emaztiak erdian, heja aitziniñan eta athariaren gibelian. Haurrak eta nechkak harrasiaren gañian.

*Lehen gizonak.*

Maria !

*Bigarren gizonak.*

Amatchi! Edaterat !

*Lehen gizonak.*

Hunat arnua !

Oihu, arramants, izkiritu, deiadar, eskuzafla, makhill ukhaldi mahañen gañian. Sehien hirriak.

Amatchi, bethi goibel : agertokiaren sarkhuran dago, mahañ baten gibelian. Sehieri zathikatzen diozkite galdetzen dituztenak.

Maidar agertu da balkoñian doidoia eta itzalian berritz sarthu, Chalbatek behatzen duelarik.

*Lehen gizona* (Patzikuren mahañetik hurbill).

Errak to, Llaru? Behar hituzke bi phersu eman besta hunen ongi akhabatzeko eta Aisek ihardets lioketek !

*Chanchiñ.*

Ba, llagun! Emadak edatekua eta kantatuko dauiat gau guzia, bardiñ. Badiat, zuzenki, behar bezalako amodioaren gañian zerbeit erran nahirik.

*Patziku* (hirriz).

Ongi zuak, hi bahau atchikitzalle !

*Chanchiñ* (begiak zerurat).

Aileza bertzerik!

Behatzalliak hirriz.

*Patziku.*

Iklusiko diagu. Bizkitartian, iduritzen beitzaitak nola eta zoin aldetarat airatuko den hire kantua — chori eder — nik enzunaraziko diat bertze chichturik. Bazterrekueri hoberenaren hautatzia!

*Patziku* (Kantaz).

Bi neskatilla muthill berari nunbeit jarraikitzen zaizko.  
 Bat aberatsa, bertzia pollita: Zoin othe du hautatuko.  
*Llarru* baladi, gure muthillak ez luke dudarik asko:  
 Moltsaren gatik, jo liotzake pollitari laur ostiko!

Amatchik, harrituchia, burua alchatzen du eta aditzen ditu persulariaren koplak.

*Behatzalliak* (oihuka).

Hiri Llarru ! Hiri !

Llarruk, lehenik edaten du trago bat, lehen gizonak eskañirik, chukatzen ezpañak esku bizkarrez eta hasten da.

Gure herriko panpiñak  
 Kardatch idorrez egiñak,  
 Athera gabe hagiñak,  
 Pichten ditu ezkontmiñak.

*Behatzalliak.*

Hola gaitza !

*Llarru.*

Oi! Galtzadun panpiñ gazte,  
 Gu ganat hurbill zaitezte,  
 Gaitezen senhar emazte :  
 Pazkoz aitzin Mendekoste! . . .

*Behatzalliak.*

Brabo! Brabo! (Eskuzafalak.)

*Patziku.*

Bazterreko mutzurdiñak,  
 Zaphar idorrez egiñak,  
 Galdu eta letagiñak  
 Pichten ditu bihotz miñak

*Behatzalliak* (hirriz).

Hori duk ! Hori duk!

*Patziku.*

Galtzadun ollar, ollachko,  
Egizue kokoriko :  
Gurekiñ zaizte biziko  
Alfer, gizen eta frechko !

*Behatzalliak.*

Emak hor, Aise !

*Llarru.*

Oi panpiñak ! Ikhus gero :  
Hamar bat haur lerroz lerro;  
Tripa hotzik, hortzak bero.  
Marrumari hoik nork harro?

*Behatzalle batek.*

Talo eta esniak!

*Llarru.*

Prestu egon baziñezte  
Azken hortzak egiñ arte,  
Ezkontza hori, nik uste,  
Hoin karats etzindukete!

*Behatzalliak,*

Biba Llarru !

*Patziku.*

Zenbeit urtheren buruan,  
Ez gaituk naski zeruan !  
Sosak iretsi lerruan,  
Hasi zorrak inguruan.  
Eta zuk, ollo gizena,  
— Zirzill izatia eztena! —

Ahantzi ere, zer phena!  
Kokorikoren izena . . .

Behatzalliak hirriz eta eskuzafrika.

*Lehen gizonak.*

Aise nagusi duk.

Irrintziñak gibelian.

Amatchi hurbilltzen da Patzikuren ganat.

*Amatchi.*

Patziku, borthizki mintzatu zare, bañan sanoki. Kantatu ditut-  
zunak asmatu ditut lehenchago, eta, gañerat, ezagutu dut egiazko  
amodio baten galzerat nindoala, nitarik eta ene urthetarik urrundu  
denaren aztaparkatzeko. Zer? Eskatu eta, ez ardiesteko. Zuk era-  
kutsiari ihardesten diot. Aski hortan. Ez naiz kukullduko eta ttiki-  
tuko hobendun ezditakenari barkhatuz.

Oihu egiten du balkoñaren alderat.

Zato, Maider !

Maiderek, Amatchiren boza ezagutziakeiñ oihu ttiki bat egiten du eta  
saltzen da bere gelan.

### **Hamargarren Agerraldia.**

*Berak — eskas Maidera.*

*Amatchi (Chalbati)*

Zuk eragiñ duzu etche huntan egiazko oñhaziaren lehen hazia.  
Enetzat hartzen dut iraka, eta bihi garbia zueri uzten. Maiderek  
eztu pairakunderik behar. Nik badakit zer diren ziñak eta miñak . . .  
Bat gihiago jasanen dut.

Maidera hor da.

### **Hamekagarren Agerraldia.**

*Berak — Maidera.*

*Amatchi.*

Barkhatzen dautzuet, nahiz edo ez nahiz, egiñ dautazuen miña . . .  
Maitha zazue elgar . . .

*Maidar* (Amatchiren besoetan).

Amatchi !

(Elgar besarkatzen dute.)

*Amatchi.*

Bai, Amatchi! Ene haur maitia . . .

Izen hori, orai hoin ezta,

Zuk dautazu eman lehenbichi . . .

Gozo zautan zu ganik: Amatchi!

Eta geroz, hemen edoñoñek . . .

Gazte, zahar — Katicha! zeronek —

Dautazue lothu izen bera . . .

Ez bainauket nihundik athera.

Zahartu nau, tenoriak jo gabe . . .

Bai, Amatchi — Gachucharen jabe —

Bathajoko izen bat egiñ zen:

Amatchi naiz bethiko gelditzen . . .

(eztikiago) *Maidar!* *Chalbat!* Noizpeit dathorrenak,

Entzun eta ditudan izenak,

Ez izanik ene alabatchi,

Deituko nau hark ere: Amatchi!

*Katicha* (leihotik).

Ez da zeruan saindurik

Amatchi bezalakorik.

*Chanchiñ* (arraitua).

Munduan ez da etcherik

Guria bezain atchikirik.

*Patziku.*

Ezta herrian alferrik

Llarru bezain dohatsurik.

*Maidar* eta *Chalbat* (batian).

Millesker gora. Millesker zuri.

Gure barnerat duzu ichuri



Nihork ez daukan beraztasuna.  
 Gure bihotzek, egun hoin hertchi,  
 Badute bardiñ lekhu, Amatchi,  
 Ohaztatzeko zure izena !

*Patziku.*

Gure aitonen kantuak  
 Ziren zenzuz hanpatuak.  
 Zioten : Gutaz ezkaitezilla  
 Izan sobera hartuak.  
 Mundu huntako frutuak  
 (Baitziren) Baitzin balsan metatuak :  
 Bakotchak hetaz zeramatzala  
 Onak eta hirotuak.

Denek kantatzen dute berritz koplak hori, eta baduazi athera toki guzietarik.

### Hamabigarren Agerraldia.

*Amatchi — Maider — Chalbat — Chanchiñ — Patziku — Katicha (leihuan).*

*Lehen gizona (ténor).*

*Shiek* billtzen dituzte botillak, eta gabargiak iraukitzen.

*Chalbat* eta *Maidar* elkarri beha dauzi.

*Patzikuk* eskua hartu dio *Amatchiri*, indar emateko.

*Chanchiñ* bere andriaren ganat gan da eta harekiñ leihuan dago, bañan kanpoko aldetik. *Maidar* badua, ichurbaturik, bere gelarat, bere zorionaren gordetzeko.

*Patziku.*

Guazen Chalbat !

*Chalbat* (eztiki).

Gau on. Bihar arte, Gachucha!

*Patziku.*

Ba. Jainkuak dizula gau on.

Amatchik buruz ihardesten diote.

Patziku, Chalbat eta lehen gizona baduazi eta urhuntsian kantatzen dute:

Bizia den bezala hartzak muthilla (etc.).

### **Hamahirugarren Agerraldia.**

*Amatchi*, eta berehala *Maidere* balkoñian arrosa billtzen, bere gelako ama birjinaren oñetan emateko.

Gizonen bozak guttitzen eta galtzen dire.

Hillargia agertzen da eta, haritz hostuen arthetik, argitzen du Amatchiren begitarte etsitua.

Orduan, emazte dohakabiari iduritzen zajo, holako hustasun izigarriari buruz, erroitz hondorik gabeko baten aitziniñan dagola; burzorak zangoen gañian itzulazten du eta erorazten alkhi batetarat, diolarik:

O ! Jainko ! Jainko ona!

Maiderekin uzten ditu, bat banazka, erortzerat Amatchiren begitarteraño bildurikako arrosen hostuak marmaritziarekiñ, berazki :

Amatchi! . Amatchi !

Hostoak, baratxe-baratxe, jausten dire, estalkia ere jausten delarik.

Bururantz.

Bidarten 1913<sup>ho</sup> Urriaren 19<sup>an</sup>.

ETIENNE DECREPT.